

Noaia!!



Txan magoak bi saio
eskainiko ditu Sutegin



Igandean

Erle Eguna

Txirrikitutik !!

Argazki honetan agertzen den eraikina, Kalezarko negartokia ("humilladeroa" edo Santutxoa ere bezala ezagutua) duzue. Jasotako datuen arabera, negartoki hau XVII eta XVIII mendeen artekoa da. Fermin Leizaola etnografoak azaltzen duenez, negartokietan auzoko soroen bedekazioa egiteaz gain, hilerriko bidean egokitzen zen kasuetan zerraldia bertan jartzen omen zen azken geldialdi bezala. Prozesioetan ere ezinbesteko geldialdia egiten omen zen negartokietan.

Kalezarko negartokia 1997an eraberritu zuen gazte talde batek Aranzadi Zientzia Elkartek eta Kutxak antolatutako auzolandegien barruan.



Zalao Arnaiz Ibarguren
 zalao@usurbil.com

Kalezarko negartokia, 1985
 Argazkia: L.A.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.

Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Aritz Gorriti.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

VIII. ERLE EGUNA **5. OR.**

AUZOETAKO KRONISTAK, KALEJIRAN **6. OR.**

ZUNTZ OPTIKOA USURBILEN **8. OR.**

TXAN MAGOA, BITAN SUTEGIN **10. OR.**

XABIER AMURIZAREN BERTSO SAIOA **11. OR.**

BURUNTZALDEKO HEDABIDEAK **12. OR.**

JUDOKAK BIKAIN JARRAITZEN DUTE **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
 Foru Aldundiak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

“Inbentarioa” vs Estrasburgo

Urriak 25 ditu. Komunikabide asko Estrasburgon bertan edota begiak norabide hartan jarriak dituzte. Kamerak eta mikrofonoak Europako Parlamentuan gertatzen dena txoko guztietara hedatzeko prest. Gaurko egunaz, asko hitz egin da. Gaur gerta zitekeenaz askok kinielak egin dituzte. PPkoak askoren jarrerak aldarazten saiatu dira.

Euskal Herrian, eguna esnatu zaigu. Lehen eguzki printze-kin, Ertzaintza Bilbo Zaharreko Goizalde herriko tabernan sartu da. Antza denez, itxita aurkitu dute.

Dagoeneko goizeko 9:00ak. Estrasburgon politikariek euren eserlekuak hartu dituzte. Bertara bidean doaz, baina ez dira oraindik iritsi atzo Euskal Herritik abiatutako hainbat herritar. Oztopo ugari jarri dizkiete bidean.

Jada, Martin Shulz talde sozialistaren bozeramaile alemaniarak, hitz batzuk egin ditu. Bere diskurtsoan Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuako presidente zenean, berak 1998an esan zituenak ahotan hartu ditu. Dagoeneko PPkoek ahaztuta dituzten hitzak. Behin betiko bakea lortzea ahalegintzeko prest agertu zela Aznar, “itxaropena, barkamena, eta

eskuzabaltasuna” erabiliz. 2006an, bere ahotik entzunda hitz sinestezinak ezta?

Ertzaintza berriro itzuli da Goizalde herrikora. Beste ertzain talde bat Zaldibirako bidean da. “Inbentarioa” egitera omen doaz. Zer inbentario ordea? Kasualitatea egun hauetan izatea? Dagoeneko hirurogeitik gora miaketa bizkar gainean dituzte. Atzo bertan izan ziren Usurbilen. Herrikoak eta herritarrak ezin bakean utzi.

12:30ak. Botoa emateko unea da. Euskal Herriko gatazkari irtenbidea aurkitzeko bide horretan, Europako Parlamentuak prozesuaren aurrean duen jarrera adierazi behar du. Segundo gutxi batzuen buruan, honako panorama; aldeko 321 boto, aurkako 311 eta 24 abstentzio.

Atzerrian eta etxean lerrokatu dira prozesuaren aldekoak eta berau zapuzteko prest daudenak ere. Estrasburgon aurrera-pausoei buruz hitz egiten. Euskal Herrian iraganekoak behar luketen egoerak, beste behin, presente. Estrasburgon ezohiko batzarra. Euskal Herrian, zoritxarrez, ohiko bihurtu diren gertakariak.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Jakoba Errekondo - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas

Ika-mika !

“Erraustegia Zubietan” gezurraren jarraipena (I)

Orain arte bezala politikariek erraustegiaren inguruan moldatutako gezur handia borobiltzen jarraitzen dute, zaborraren arazoari irtenbidea bilatu ordez. Kudeaketa egokiena bilatzen saiatu ordez, erraustegia inposatu nahi digute, eta horren kokapenarekin gora eta behera dabilta, arazoa errausketa bera dela onartu gabe. Baina aztertu dezagun, zer da erraustegia?

Erraustegia industria arriskutsu, kutsatzaile eta deseroso bat da, eta horregatik egun indarrean dagoen legediak jendearen bizi-lekuetatik 2 km-ra urruntzeko eskatzen du. Gainera bere osotasunean hartuz gero, zaborra kudeatzeko dagoen modurik garestiena da, hasieran egin behar diren inbertsioengatik, mantentze egoki batek behar dituen kostuengatik, eta sortzen dituen arazoenga-

tik. Tximiniatik botatzen duenari, errauskak eta eskoriak gehitu behar zaizkio. Hauek oso kutsakorrak direnez, eta kutsatzeko gaitasuna urte askotan mantentzen dutenez, erraustegiak ere zabortegiak behar ditu, eta ez nolanahikoak, zabortegi bereziak baizik, gai toxikoen tzako direnak. Horien kostuak ere handiagoak dira baina sarritan ez dituzte errausketaren kostu bezala sartzen, eta diru publikoekin aurre egiten zaie, errausketaren negozioa ziurtatzeko.

Industria honen lehen gaia zaborra da, hau da, bere etekina zabor kopuruaren eta zabor motaren baitan dago. Zenbat eta zabor gehiago bildu hobe, eta zenbat eta erregai gehiago dakartzaten zaborrak hobe. Garbi dagoena da industria honek kontsumismoa bultzatzen duela, jendar-tea gero eta zabor gehiago sortzera bide-

ratuz eta birziklatzeari trabak jarritz. Zabor motak industria honen etekinarekin zerikusi handia duenez, errausketa birziklatzearen aurka doa. Zenbat eta gehiago birziklatu, orduan eta gutxiago bilduko lirateke erregai diren zaborrak (papera, kartoia, ontziak, plastikozko poltsak, egurra eta abar) eta, horrela, materia organikoa erretzeko bestelako erregaia erabiltzeko beharra legoke (gasa edo gasolioa). Jadanik erraustegia duten lekuetan papera edo ontziak bereizita bildu ondoren erraustegiara eramaten dituzte, jendartearen partehartzeari eta konpromisoari iruzurra eginez.

Imanol Azpiroz

(Datorren alean, idatzi honen bigarren zatia)

Julian Urkiola, Erle Eguneako antolatzailea

“Erlezaintzat urteko egun garrantzitsuena da Erle Egunekoa”

Igande honetan, zortzigarrenez ospatuko da Erle Eguna Usurbilen. Ez da nolanahiko eguna izango. Erlezaintzat eta ezti zaletuentzat urteko hitzordu garrantzitsuena baita. Eta ez bakarrik Gipuzkoa mailan. Duela sei urtetik hona, Euskal Herriko Ezti Lehiaketa jokatzeko da Erle Egunean. Julian Urkiolak azaldu digun eran, “Ordiziako gazta lehiaketak artzainen artean duen sona berbera du Erle Eguna Euskal Herriko erlezainen artean”.

Iaz azaroaren amaieran ospatu zen Erle Eguna. Hotza handia egin zuen eta eguna ez zen atsegina izan. Julian Urkiolak, Erle Laguna taldeko kideak, gauza bakarra eskatu du. Eguraldia ez dadila traba izan. Azken asteotan lanak pilatu zaizkien arren, urte osoa eman dute Erle Egunean pentsatzen. Eta bada-kite eguraldiak ez badu laguntzen, jende gutxiago ibiliko dela eztiaren festa handi honetan.

Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako erlezain elkarteetako ordezkariak bilduko dira frontoian. Beste urte batzuetan Iparraldetik etorri diren erlezainei ere gonbidapena luzatu zaie. Guztira, 23 izango dira Erle Egunean ipiniko diren saltokiak. Eztiaren gain, eztiarekin egindako produktu ugari ikus eta erosi ahal izango dira: argizaria, ukenduak, eztiak...

Iaz, lehen aldiz argazki rally-a egin zen Erle Egunean. Ekimenak arrakasta izan zuen eta aurten bigarren edizioa ospatuko da.

Ikusleentzat bezain erakargarri izango da erlezaintzat Erle Eguna. Goizean goiz hasiko baita Euskal Herriko VI. Ezti Lehiaketa. 9:00etan irekiko da ezti aurkezteko epea. Lehiaketa bikoitza izango da. Lore bakarreko ezti onena sarituko da, batetik; lore anitzeko ezti, bestetik.

Gozogileentzat ere ederra da Erle Eguna. Eztiz eginiko postre onenak ere saritu ohi dira.

Epaimahai ezberdinek euren lana egingen duten bitartean, frontoian eta Dema plazan ipiniko diren saltokiak bisitatzeko aukera izango da.

Eguerdiko 13:30ean lehiaketa ezberdinetako sari-banaketa hasiko da. Segidan, ezti sarituen enkantea egingo da. Eta eguna biribiltzearen, bazkaria Aginaga sagardotegian. Bazkarirako txartelak Erle Egunean bertan jarriko dira salgai.

Pirritx eta Porrotx

Erle Egunarekin bat

Pirritx eta Porrotx pailazoak ere Erle Egunean izango dira. Goizeko 10:00ak aldera iritsiko dira. Jogurt-a eta ezti banatzera etorriko dira Usurbila. Sutegiko kanpoaldean izango dira txiki eta handien zain.



JULIAN URKIOLA,
ERLE LAGUNA TALDEKO KIDEA.

Erleari buruzko

argazki-erakusketa Sutegin

Erlearen munduari buruzko erakusketa ikusteko aukera izango da igandean. Dena den, “Erleari buruzko argazki erakusketa” bezperan zabalduko dute. Arratsaldeko 16:00etatik 19:30era ikusgai izango da erakusketa. Azaroaren 4an hasi eta 15a bitartean, Argazki Lehiaketan aurkezturiko argazkiak ikus ahal izango ditugu.

IMANOL UBEDA _____

Azaroak 5 igandea, VIII. Erle Eguna

9:00-10:00. Ezti zein gozogintza lehiaketako produktuen bilketa.

11:00-14:00. Erakusketa: erleak, argizaria, informazio-panelak, postuetako salmenta, musika, bertsolariak...

13:30. Ezti eta gozogintza sarien banaketa eta ezti sarituen enkantea.

Argazki lehiaketaren sari banaketa.

14:30. Egunari amaiera emateko,

bazkaria Aginaga sagardotegian (txartelak egunean bertan jarriko dira salgai).

Antolatzailea: Erle Eguna taldea.

Babesleak: Usurbilgo udala, Gipuzkoako Erlezain Elkarte, Foru Aldundia, Euskadiko Kutxa, Kutxa, Eroski, Neiker, Kaiku.



Zuntz optikoa Usurbila iritsi da

Jada, zuntz optikoa ezartzeko lanak hasiak dituzte. Herriko Kaxko inguruan eguberri inguruko amaitzea espero dute. Urte berriarekin, zuntz optiko bidezko zerbitzuak jaso ahal izango dira; telebista, telefono eta Internet zerbitzuak.

NOAUA! Zuntz optikoa ezartzeko lanak egiten ari dira Kaxkoko hainbat guneetan?

Felix Aizpurua aparejadorea. Euskaltelekoak lur azpiko sarea osatzen dabilta. Falta diren lekuetan, hodiak sartzen dabilta. Lanak bi fasetan gauzatu dira; lehenik, falta zaizkien hodiak jarri eta horietan kableak sartzea. Lan horiek etxe atarietaraino egingo dira. Bigarren fasea, etxe atari bakoitzean etxebizitzetako jabeekin hitz egingo dute. Jada, bilerak egiten hasiak dira. Gero, etxez etxe zuntz optiko bidez eskainiko diren zerbitzu horiek nahi dituzten edo ez galdetzeraz etorriko dira. Horren ondotik, bakoitzak egin beharko du aukeraketa.

N. Lan horiek etxe barruraino egingo dira?

F. A. Ez. Etxe guztietan batean doazen bi kable sartzen dituzte; telefono haria eta Internet eta telebista garraiatzeko beste bat. Gero, bakoitzak nahi duen operadorea kontratatatu ahal izango du. Telebistaren kasuan, linea telebistaraino eramango dute; Interneten kasuan, ordenagailuraino. Dena langileek instalatzen dute.

N. Lanak lehendik hasiak zeuden?

F. A. Naturgasek eta Euskaltelek akordio bat sinatua zuten. Horren arabera, Naturgasek Usurbilen gasa sartzeko lanekin batera, Euskalteleko sareko hodiak jarri behar zituzten. Lanak hasi ziren baina gerora, akordioa eten egin zen. Ordutik, Naturgasekoek gasa sartzen zuten baina Euskaltelen hoderik ez. Ondorioz, Usurbilen gune batzuetan Euskalteleko hodiak jarrita daude; besteetan, ordea, ez.

Salome Portu, hirigantza arloko zinegotzi arduraduna. Lanak konexioak falta



SALOME PORTU ETA FELIX AIZPURUA AZALDU DIZKIGUTE SARE BERRIAREN NONDIK NORAKOAK.

ziren lekuetan egiten ari dira. Bestela, sarea ia osatuta zegoen.

FELIX AIZPURUA

“Telebistako eskaintzan, zuntz optiko bidez eramandako irudiak oso irudi garbiak dira. Kalitate handiagokoak”

N. Banatzaile bat ere izango omen da?

S. P. Nodoa deitzen dioten banatzaile nagusia, Pello Arraindegia zuen lokal zaharrean kokatuko da. Kableatu nagusia horra eraman, eta hortik sare banaketak egiten dute.

N. Bezeroek zer nolako abantailak izango dituzte?

F. A. Euskalteletik, Interneteko abiadura handiagoak lortuko direla diote. Zuntz optikoaren bidez, hala lortzen omen da. Telebistako eskaintzan, zuntz optiko bidez eramandako irudiak oso irudi garbiak dira. Kalitate handiagokoak.

N. Bezeroek orain arte Telefonicarekin izan duten antzeko loturarik izango al dute Euskaltelekin?

F. A. Gaur egun Telefonicako lineatik zerbitzatzen digute Euskalteleko konexioa. Euskaltelekin kontratua izan arren, Euskaltelek Telefonicako linea baliatzen du. Ondorioz, Euskalteli ordaintzen diogu eta Telefonicari linea alokairua. Aurrerantzean, ordea, ez da halakorik gertatuko. Sare guztia Euskaltelena izango da.

S. P. Operadoreen arteko gerra batean kontsumitzaileak nahasten ari dira. Edozein kasutan, aurrerantzean bezeroek nahi duten operadorea kontratatatzeko lehen baina aukera gehiago izango dituzte. Euskaltelekin inolako loturarik izan gabe.

N. Euskalteletik zer nolako eskaintza egiten dute?

F. A. Ideia bat egitearren, Euskaltelek honako eskaintza egiten du: telefono zerbitzua, hamabost telebista kate (oinarrizkoak; egun ikusten ditugunak, lokalak, TV5, BBC...) eta Internet banda zabala. Une honetan, telefono zerbitzua hileko 15 euroren truke eskura daiteke; telebista eta Internet zerbitzuak, aldiz, hileko 22 euroren truke. Horrenbestez, guztira hileko 37 euro ordainduta eskura daitezke zerbitzu horiek. Baina hori oinarritzko eskaintza da. Bestalde, adibidez, zazpi euro gehiagorekin, telefono finkotik beste finko batera deitzeko aukera dago.

Beraz, eskaintza ugari dago.

N. Euskaltelek zerbitzuak abian jartzeko epea, urte amaieran jarri omen du?

F. A. Bai. Haiek kableatua eguberrieta-rako amaituta uztea nahi dute. Jarraian, komertzialak etxez etxe eskaintzak egiten joango dira.

AUZO BATZUK, SARETIK KANPO

Santuenea, San Esteban, Txokoalde, Aginaga eta Zubieta zuntz optikoaren saretik kanpo geratu dira, oraingoz

N. Herritar oroengana iritsiko al da sare hori?

F. A. Oraingoz ez. Haiek haien planifikazioa egiten dute. Horren barne hartzen ditu Usurbilen; Kaxkoa, Kale Zahar, Olarriondo, Atxega-Alde, Etxealdia eta Txaramuntoko etxe berriak. Horiek dira momentuz bere sarean jarrita daudenak. Santuenea, San Esteban, Txokoalde, Aginaga eta Zubieta kanpoan geratuko lirateke.

N. Iristen ez diren guneei begira, zer asmo dituzue?

S. P. Zenbait herritan, guneei apartatuetan Eusko Jaurlaritzak banda zabala eskaintzen ari da, Retevisioko antenak baliatuta. Datorren urteari begira, herrian zer aukera dauden aztertu behar dira. Retevisioko antenak baditugu eta horiek baliatuta, banda zabala. Antena bidez, aukera izango dugu.

N. Argibide bila dabilenak nora jo dezake?

F. A. Euskalteko web gunean, eskaintzen berri ematen da. Etxez etxeko bilera batzuk ere egin dira. Lanen berri eman eta baimena eskatzen zuten, etxe atari barruan egin beharreko lanak egiteko. Lanak amaitzean, etxez etxe joango dira eskaintzen berri emanez. Bakoitzak nahi duen eskaintza eta operadorea kontratatatu ahaliko du.

S. P. Gero norberak dituen zerbitzuak bakoitzak eskatu beharko ditu. Inork zalantzarik izango balu, gugana zuzendu dadila.

Baina zer arraio ote da zuntz optikoa?

Zer da zuntz optikoa?

Kable ere deitzen zaio. Zuntz Optikoa azken belaunaldiko euskarria da, eta, bide bakarretik telekomunikazioetako zerbitzu ugari emateko aukera ematen du.

Zuntz Optikoaren kable batek ile bat bezain meheak diren beirazko zuntzak izan ohi ditu. Zuntz horietako bakoitza komunikazio-kanal independentea da, eta handik transmititzen da seinale optikoa. Beirazko kable fin hori teknologia berria da, eta alde batera utzi ditu lehengo kobrezko kableak.

Ezaugarri nagusiak:

Banda-zabalera. Kable-pareek eta kable ardazkideek baino askoz banda-zabalera handiagoa ematen du zuntz optikoak. Zuntz Optikoaren banda-zabaleratik datuak, ahotsa, bideoa... igarotzen dira.

Distantzia. Seinale optikoaren indargabetze baxuari esker, Zuntz Optikoko kableak ezar daitezke, errepikagailu gabe.

Datu-integritatea. Egoera normalean, zuntz optiko bidezko datu-transmisioen errore-maiztasuna (edo BER, Bit Error Rate) 10 E-11 baino txikiagoa da. Ezaugarri horri esker, goi-mailako komunikazio-protokoloek ez dute behar erroreak zuzentzeko prozedurarik, eta transferentzia-abiadura areagotzen da.

Iraupena. Zuntz Optikoak korrosioa eta tenperatura altuak jasaten ditu. Bilgarriaren babesari esker, tentsio handiko indarrak jasan ditzake instalazioan.

Segurtasuna. Zuntz Optikoak ez du sortzen erradiazio elektromagnetikorik; hortaz, ezinezkoa da entzuteko ekintza intrusiboak egitea. Zuntzean



PELLO ARRAINDEGIAREN LOKAL ZAHARREAN KOKATU DUTE "NODDA".

doan seinalera sartzeko, beharrezkoa da zatitzea; ondorioz, prozesu horretan ez dago transmisiorik, eta atzeman daiteke. Kanpoko efektu elektromagnetikoek ere ez diete eragiten zuntzari. Horrenbestez, industria-inguruneetan erabil daiteke babes berezirik gabe.

Zuntz optikoaren abantailak zeintzuk dira?

Zuntz Optikoa ezartzeko, denbora asko eta ekarpen handiak behar dira, baina abantaila ugari ditu erabiltzaileentzat. Abantaila nagusia da etorkizuneko aplikazio guztiak hartzeko presatuta dagoela. Abantaila ugari ditu:

Edukiera eta abiadura handiak. Banda-zabalerari esker, informazio-bolumen handiak jaso eta igor daitezke. Kasurako, bostehun telebista-kanal baino gehiago jasotzeko aukera ematen du. Abiadura handiari esker, Interneten egungo kanalekin baino 300 aldiz azkarrago nabigatzea bermatzen du.

Erosotasuna eta aurrezteak. Zuntz Optikoari esker, bide bakarrean bateratzen dira komunikazio-zerbitzu guztiak. Hau da, instalazio bakarrekin, eskaintza ugari eskura daitezke, eta horrek aurrezteak dakar. Euskaltel operadoreak zerbitzu guztiak eskaintzen ditu: Telefonía Finkoa, Internet (Banda Zabala) eta Kable bidezko Telebista.

Txan magoak “Magiaz blai” ikuskizuna eskainiko du Sutegin

Txan magoaren joko eta trikimailuekin goatzeko aukera izango dute larunbat arratsaldean Sutegiko aretora joango diren hurrek. Bi saio eskainiko ditu Txan magoak. Lehen saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta bigarrena arratsaldeko 19:00etan. Bi saioetarako sarrerak geratzen dira oraindik.

Txan magoarekin, magia ikustez gain barre algarak egiteko aukera izan ohi da. Magia jokoetan murgilduko gaitu eta, beti bezala, ez dugu jakingo noiz den ilusio eta noiz errealitatea.

Telebistaren ondorioz, hurrekin lotzen dute Txan magoa irudia, baina helduentzako magia ikuskizunak ere eskaini ohi ditu. Sutegin, dena den, haurrak izango dira hamaika magia-jokoen protagonistak.

Haurrentzat zuzenduta daude Sutegiko bi saioak baina adin guztietako publikoarentzat ere gustagarriak.



SUTEGIKO AUDITORIOA TXIKIA DENEZ, BI SAIO ESKAINIKO DITU AZAROAREN 4AN.

Sarrera, bi euro

“Magiaz Blai” ikuskizuna eskainiko du telebistako mago ezagunak. Sarrerak, 2 eurotan, Txirristan eta

NOAUA!ko egoitzan aurkituko dituzue. Aldez aurretik agortzen ez badira, egunean bertan Sutegiko takilan eskura izango dira magia saioetarako sarrerak.

Joseba Tapiak “Real Politik” diskoa aurkeztuko du Sutegin

Duela hiru aste eskas aurkeztu zuen disko berriena Joseba Tapiak. Ostiral honetan, azaroak 3, Sutegin aurkeztuko du “Real Politik” diskoa. NOAUA!k antolatutako duen saio honetarako sarrerak Txirristan eta NOAUA!ko egoitzan bertan topatuko dituzue. 8 eurotan da sarrera, baina NOAUA!ko bazkideek 5 eurotan jaso dezakete. Hori bai, bazkideek sarrera 5 eurotan jaso nahi badute, NOAUA!ko egoitzatik pasa beharko dute azaroaren 2a baino lehen. Kontzertuaren egunean



AZAROAREN 3AN ARITUKO DA SUTEGIN

bertan, sarrerak denentzat prezio berdina izango dute, 8 euro.

Munduko parajeak, Aitor Egiletaren begietan

2004ko
abenduan
hasi zen Aitor
Egiletaren
abentura.
Munduko



txoko ezberdinak bisitatuz urtea egin zuen. NOAUA! aldizkarian eta noaúa.com webgunean, bidaia-kronika atseginak eta argazki zoragarriak argitaratu genituen. Ikusentzunezko bat ere prest du Aitor Egiletak, eta horixe da Sutegin eskainiko duena. Azaroaren 7an asteartea, arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

Amuriza eta Ducauren eskutik, bost hamarkada bertso musikatueta

Gatza, pipermin, satira eta bizitasun handiko istorioak". Xabier Amuriza bertsolariak, Mixel Ducau musikariarekin batera Sutegin eskainiko duten "50 urte" bertso emanaldia, gisa horretan laburbiltzen du. NOAUA! Kultur Hamabostaldiko ekitaldia azaroaren 10ean eskainiko da, gaueko 22:00etan.


50 urteek askotarako ematen dute. Azken mende erdian, arlo politiko, sozial edota hizkuntzalaritzan, gertakari asko izan da. Bertso musikatu bidez hamarkada horietan gertatutakoaren kontakizuna egingo du Xabier Amuriza bertsolariak, Mixel Ducau musikariak lagunduta. NOAUA! Kultur Hamabostaldiko ekitaldiak, Amurizaren hitzetan, "gai gatazkatsu eta pikante samarrak bilduko ditu". Emanaldi apala izango da, formatu txikian prestatua baina aldi berean, eraginkorra izango den emanalditzat jotzen du zornotzarrik.

Ekitaldia prestatzeko hamazazpi urte zituenetik aurrera botatako bertsoen artean aukeraketa egin du Amurizak. "Garai bateko egoerak eta bertsoak berreskuratuko ditut", aurreratu du bertsolariak.

Frankismo garaiko espetxeetako bizitza gogora ekarriko da. Baita, Lemoizen izandako gora beherak ere. "Irabazi dugun bataila gutxieta bat", bertsolari bizkaitarraren hitzetan. Gai alaiagoak ere ahotan hartuko ditu; adibidez, Realak Liga bi urteetan jarraian irabazi zueneko.

Baina gertuagoko gaiak ere jorratuko dira. Emanaldiaren unera arte ezkutuan mantendu nahi izan arren, Usurbil lotutako istorioak entzuteko aukera izango dela aurrera daiteke. 70. hamarkada amaieran, herrian zeresana eman zuten gertakariak oroitzeko parada eskainiko da.

Ekitaldia, modu erakargarri batean, garai bateko kontuei hautsa kentzera



XABIER AMURIZAK AZKEN HAMARKADEAN BOTATAKO BERTSOEN BILDUMA EGINGO DU; TARTEAN, USURBILGO GERTAKARIEI LOTUTAKOAK.

dator. "Historia berreskuratuko dugu, eta kantuekin eginda, entzuleek gozatuiko dute", adierazi du bertsolari bizkaitarrak.

Amurizak ahotan hartuko dituen istorioez gain, tarteka, Mixel Ducau musikaria bakarlarik gisa arituko da. Bertsoei musika jarri eta bereak diren piezak joko ditu.

Sutegin eskainiko duen emanaldia berezia izango da Amurizarentzat. Herriarekin eta herriko bertso eskolarekin harremana izan baitu. Bestalde, bere bertsolaritza ibilbideari amaiera duina emateko aukera gisa ikusten du. "Neure bertsolaritza ibilbideko azken kapritxo gisa hartzen dut" adierazi du bertsolariak.

Sarrerak eskuragarri

Emanaldi egunean, Sutegiko takillan bertan salgai izango dira sarrerak; 3 euroren truke. NOAUA!ko bazkideek doan izango dute. Gonbidapenak egoitzan jaso daitezke, azaroaren 9a baino lehen. Bazkide bakoitzeko gonbidapen bakarra eskura daiteke.

Galarretako bertso jaialdiaren haritik, Sutegikoa

Amurizak eta Ducauk Sutegin eskainiko duten emanaldiak duela 28 urte ospatu zen jaialdi batean du jatorria. 1978ko azaroaren 11n, Galarretako pilotalekuan Gontzal Mendibil, Azpillaga eta Lopategirekin batera zornotzarrik bertso emanaldia eskaini zuen.

Jaialdi hartarako, usurbildar talde bat inguruko herrietan garai hartan pil-pilean zeuden gaiak biltzen aritu zen. "Ordukoan Usurbil izan zen jaialdiaren motore" gogoratu du Amurizak.

Galarretara hurbildu zirenek entzun zituzten bertsoek harridura sortu zuten haiengan. "Informazioa nondik jaso nuen harrituta zeuden" gogoratu du Amurizak. Bat batean botatakoak zirela ere pentsatu zuten. Duela ia hiru hamarraldi eskaintako emanaldia arrakastatsua izan zen.

Hartzen al duzu zure herriko aldizkaria? Eta gustora irakurtzen al duzu?

Buruntzaldeko 6 herrietako udalek, herri horietako komunikabideekin batera, azterketa egin dute Buruntzaldeko herri komunikabideei buruz. Aiurri, Hernaniko Kronika, Noaua eta Txintxarri hedabideei buruz egin dituzte galderak. Gaur egunean jendeak nola ikusten dituen, eta etorkizunean zein bide egin beharko luketen aztertu nahi izan da, horrela.

Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen egin dute inkesta, eta herritarren iritzia jaso dituzte herri horietako komunikabideei buruz: irakurtzen al diren, edukia gustokoa duten, zer botatzen duten faltan...

Badira urte batzuk, Buruntzaldeko herri komunikabideak, eta herri horietako udaletako Euskara Batzordeak elkarlanean ari direla, bakoitzak bere herrian zein lan egiten duen aztertu, eta elkarrekin egin daitezkeen bideak zehazten. Pausu batzuk emanak daude, eta orain urrugo joan nahi dute. Horregatik, Buruntzaldeko herrietan inkesta bat egin da, herritarrek komunikabide horiei buruz duten iritzia jasotzeko eta dituzten interes eta lehentasunak aztertzeko. Andoain, Urnieta, Hernani, Usurbil eta Lasarte-Oria egin dituzte inkestak, Aiurri, Hernaniko Kronika, Noaua eta Txintxarri buruz.

HERRI HEDABIDEAK

“Inkesta egin zaien herritarren %90 baino gehiagok irakurtzen du bere herriko egunkari edo aldizkaria”

Nori eta nola egin zaio inkesta?

Herri bakoitzean 14 urtetik gorako jendea egin zaizkio galderak, adin



BURUNTZALDEAN 4 HERRI EGUNKARI EDO ALDIZKARI DAUDE, FORMATU ETA MAIZTASUN EZBERDINA DUTENAK. AIURRI (ANDOAIN ETA URNIETAN), HERNANIKO KRONIKA (HERNANIN), NOAUA (USURBIL) ETA TXINTXARRI (LASARTE-ORIAN).

tarte desberdinak (gazteak, helduak eta edadekoak) eta emakumezkoa ala gizonezkoa den kontuan hartuta. Inkesten %75 euskaraz egin dira eta %25 gaztelaniaz (Urnieta denak euskaraz egin dira). Galderak telefonoz egin dira, eta herri bakoitzean 200dik gora pertsona anonimoki eskatu zaio iritzia; bestalde, aldezturik erabakitako 20 lagunek iritzia zabalago bat eman dute idatziz, eta galderak aldezturik zehaztuta.

Zer da aztertu dena?

Hiru gai nagusi aztertu dira telefonozko inkesta honetan:

1) Batetik, herri komunikabideen inguruko informazioa jaso da: zenbat

irakurtzen diren, irakurleak zein diren, eta zein diren euren lehentasunak: edukiari buruz, formatuari buruz eta abar.

2) Bestalde, prentsa orokorraren inguruan Buruntzaldeko herritarrek dituzten ohiturak eta lehentasunak zein diren ere aztertu da: zein diren gehien irakurtzen diren egunkari eta aldizkariak, zenbateko maiztasunez irakurtzen diren, etab.

3) Azkenik, herritarrek beren herri-rako zer nolako egunkari edo aldizkari mota nahiko luketen ere galdetu da; baita ere, eskualdeko beste herrietako informaziorik interesatzen zaien ala ez.

Idatziz egin diren galderak irekiago-

ak izan dira, komunikabidea gertutik ezagutzen duten 20 herritarren iritzia modu zabalagoan eta sakonxeago jasotzeko prestatuak.

Ondorio nagusiak

Beste ondorio askoren artean, honakoak dira nagusiak: Inkesta egin zaien %90etik gora herritarrek irakurtzen dute herriko aldizkari edo egunkaria. Gehiena herriko informazioa interesatzen zaie; zenbat eta gertuagokoa, orduan eta nahiago; herrikoa eta ahal bada auzokoa. Zenbat eta maizago kaleratu, orduan eta nahiago, eta doan banatzea oso positibo jotzen dute. Begi onez ikusten dute, bestalde, eskualdean dauden komunikabideen arteko harremana sendotzea eta elkarrekin gauzak egitea.

IKERKETA EZ DA AMAITU

“Behin diagnosia eginda, datozen hiru hilabeteotan gogoeta lanari helduko diote herri komunikabideek”

Aurrera begira zer

Behin diagnosia eginda, datozen hiru hilabeteotan gogoeta lanari helduko diote herri komunikabideek, eta hori bi mailatan egingo dute. Alde batetik, herri mailako gogoeta izango da, nork bere herriko komunikabidea hobetze aldera zer urrats eman aztertze; eta bestetik, Buruntzalde mailakoa, eskualdean dauden komunikabideen artean egin litezkeen elkarlan proiektuak aztertze. Bigarren fase honetan sartuko da Astigarraga ere.

Ikertalde enpresa

Buruntzaldeko udaletako euskara batzordeek finantzatzen dute lan hau eta, udal hauen enkarguz, Ikertalde aholkularitza taldeak egin du azterketa eta berak bideratuko du gogoeta fasea ere.

Gehiengo zabal baten ustez, NOAUA! hamaboskaria astekari bihurtzea positiboa izan da

Buruntzaldeko herri komunikabideei buruzko azterketa Ikertalde enpresak egin du. Udaletxeek sustatu duten ikerketa honi esker, herri hedabideei buruzko datu ugari jaso dira. Azpimarragarriena hedabide hauek duten irakurketa-maila. Ikertalde egin dituen inkesten arabera, elkarrizketatuen %92ak dio argitaratzen den aldioro irakurtzen duela NOAUA!. Beraz, gure lana ez da alferrikakoa.

Ikertalde egin duen azterketa honetan, herri aldizkariaren iritzia hartu da kontuan. Galdetegiaren prestaketan hartu dute parte Buruntzaldeko hedabideek, tartean NOAUA!k. Herriko informazioa ondo jasotzen ote den galdetu zaie elkarrizketatuei, eta usurbildarren iritziz, NOAUA!k ondo jasotzen ditu interesgarri diren albisteak. Elkarrizketatuen %94aren ustez, eurentzat interesgarri den informazioa dakar NOAUA!k.

Banaketa, aldizkariaren maiztasunaz, hizkuntza-mailaz, objetibotasun-mailaz, edukiaz, publizitateaz ere galde egin zaie ikerketa honen elkarrizketatuei. Usurbilen, 182 izan dira Ikertalderen inkesta telefonoz osatu dutenak.

Aipatutako arlo guztietan, baloratuena aldizkariaren doakotasuna da. Banaketa sistema, esate baterako, Buruntzaldeko baloratuena da. 0 eta 5 arteko tartean, 4,70ko nota jaso du NOAUA!ko banaketa-sistemak.

Elkarrizketatuek adierazi dutenez, NOAUA! gustura irakurtzen dute denetarik aurki daitekeelako. Formatoa (aldizkari eredu) gustuko dute baina aldizkariaren itxura, estetika, diseinua da hobetu beharko litzatekeena.

Edukien aldetik, herriko albisteak dira gehien jarraitzen direnak. Auzoetako kronikak eta elkarrizketak doaz atal estimatuen zerrendan. Gehigarri bereziak eta erreportajeak



ASTEKARIAK HARRERA ONA IZAN DU.

dira elkarrizketatuek gutxien atsegin dituzten atalak.

NOAUA! irakurtzen duten usurbildarren gehiengo zabal baten ustez, hamaboskaria astekari bihurtzea positiboa izan da. Elkarrizketatuen %86ak hala uste du.

Buruntzaldeko gainerako herrien informazioa jaso beharko lukeen ere galde egin zaie elkarrizketatuei. Usurbildar elkarrizketatuen gehiengoak gustura jasoko lituzke beste herrietako kontuak. Bada beste datu esanguratsu bat. Buruntzaldeko herri aldizkariaren irakurleak hedabide komun baten alde azaldu dira.

www.noaua.com webgunearen aldeko apustua

NOAUA! Kultur Elkartek teknologia berrien aldeko apostu garbia egin du azken urteotan. Horren adibide dugu webgunea, www.noaua.com klikatuz topatuko duzuen. Dena den, gure webgunearen ezagutza maila bajua da. Elkarrizketatuak izan diren pertsonen artean, soilik %19ak ezagutzen du. Baliteke elkarrizketatuak izan diren asko Internet-eko nabigatzaileak ez izatea. Hala ere, kontuan hartzeko datua da. Webgunea ezagutzen dutenek, ordea, ezaugarri hauek nabarmendu dituzte: web orrialdean nabitzea erraza egiten zaiela eta noaua.com webguneak aukera zabala eskaintzen duela. Eztabaida-foroa da atalik gustukoena.

Asteazkenean hasiko da sukaldaritza ikastaroa Santuenean

Su artean zer ikasia badago. Baita zer irakatsia ere. Horren adibide garbia dugu Santuenea Elkarteak antolatu duen ikastaroa. Xabi Tello usurbildarrak sukaldaritza ikastaroa eskainiko du.

Auzoko Ibai Ondo elkarteak sukaldaritza zer bait gehiago jakin eta ikasi nahi dutenen bilgunea bilakatuko da. Azaroaren 8tik aurrera izango da. Asteazkenean eta sei astez luzatuko da. Informazio gehiago 943 371 535 eta 943 365 031 telefono zenbakietan eskura daiteke. Bestalde, abian dagoen haurren masaje ikastaroari, laster, hel-



duena gehituko zaio. Modu berean, hasia da "Emozioen mundua" Izar Arregi psikologoak emakumeei zuzenduko dien hitzaldi sorta. Hurrengo, hilaren 10ean; "Bizitzaren zikloak".

Merka2 azoka ez zen oharkabean pasa

San Markoseko Mankomunitateak antolatu zuen aurreko igandean ospatu zen azoka, Merka2 izenekoa. Hondakinen sorrera murriztea da azoka honen helburu nagusia. Gaur egungo kontsumo-joe- ren eraginez, erabilgarriak diren objektu asko bota egiten ditugu eta horri aurre egiteko antolatu zen Merka2 azoka.



UDARREGI IKASTOLAKO IKASLEEK LAN EDERRA EGIN ZUTEN.

Ikastaro ugari, KzGunean

Hilabete honetan arratsaldeazabalduko da KzGunea; 16:00-20:00 artean. Sarean doan nabigatu ahal izateaz gain, IT Txartela eskuratzeko hamabi aukera izango dira. Bi orduko saioetan banatuta. Hilero beste hitzordua, Interneteko ikastaroa izan ohi da. Hilaren 6tik 17ra eskainiko da 18:00-20:00 artean.

Ez da, ordea, datozen asteetarako programatu den ikastaro bakarra. Eduki anitz jorratuko dira hainbat mintegitan. Azaroaren 7an asteartea, Euskal Herriko nekazal mundua jorratuko da. Eskaintza, ordea, zabalagoa da. Informazio gehiago, KzGunean bertan edota honako telefono zenbakian: 943 36 14 12.

Pello Añorga ipuin kontalaria Sutegin

Duela gutxi izan zen gure artean Pello Añorga ipuin kontalaria. Azaroaren 10ean, berriz izango da gure artean: Sutegiko liburutegian, arratsaldeko 18:00etan. 4 urteko haurrei zuzendutako saioa eskainiko du. Sarrera doan.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



ARRAINDEGIA
PELLO



Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

ZUBIAURRENEA 4, USURBIL

ARRAINDEGIA

943361951

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

JUANTXO
BURINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Garaipenak lortzen jarraitzen dute judoek

Usurbil Judo Taldeak senior mailako Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen igandean Zarautzen. Euskadi mailan klub onena izaten jarraitzen duen herriko taldeak jokoan ziren 13 probetan urrezko 9 domina eskuratu zituen, baita zilarrezko 4 eta brontzezko 3 domina ere. Emakumezko nahiz gizonezkoetan nagusitasuna erabatekoa izan zen.

Denboraldia hasi besterik ez da egin eta dagoeneko garaipen ugarirekin herri-ira itzultzen hasia da Usurbil Judo Taldea. Zarautzen jokatu zen igande goizean senior mailako Gipuzkoako txapelketa eta jokoan ziren 13 probetatik 9 irabazi zituzten herriko taldeko judoek. Denboraldiko lehen txapelketa honetan erabateko nagusitasuna erakutsi zuten, guztira 16 lortu baitzituzten.

Emakumezkoiei dagokionez, bost urrezko domina eskuratu zituzten: Nerea Sanz (48 Kg.), Sara Quijano (63 Kg.), Nerea Arruti (70 Kg.), Ane Perez (78 Kg.) eta Maria Jose Sardon (+ 78 Kg.). Zilarrezko domina lortu zuen, aldiz, Tamara Varela 63 kilotan. Gizonezkoen mailan, Ibai Peña (66 Kg.), Xabier Urkizu (73 Kg.), Egoitz Mora (90 Kg.) eta Mikel Ponga (6+ 100 Kg.) izan ziren irabazleak, Andoni Aizpuruak (60 Kg.), Iñigo Mitxelenak (66 Kg.), Aitzol Arrospidek (73 Kg.) eta Jon Garnicak (+ 100 Kg.) 2. postuan amaitu zuten eta 3. postuan Iñigo Pons ek (73 Kg.) eta Ibon Pintadok (+100 Kg.).

Esteban Arrillaga Usurbil Judo Taldeko entrenatzailea gustura zegoen lortutako emaitzekin, baina garaipen gehiago lortu zitezkeelakoan zegoen. "Alde handiarekin irabazi dugu Gipuzkoako txapelketa, beste taldeekin alderatuz nagusitasuna erabatekoa izan baita. 10 edo 11 urrezko domina lortzeko asmoarekin joan nintzen Zarautz aldera eta helburu hori ez dugu bete. Hala ere, 13 probetatik 9 irabaztea ez dago batere gaizki".

Liga Nazionale helburu

Asteburu honetan, berriaz, Klub Liga Nazionaleko lehen jardunaldia jokatu du Usurbil Judo Taldeak mutilen mailan.



ALDE HANDIAREKIN IRABAZI DU GIPUZKOAKO TXAPELKETA USURBILGO TALDEAK.

Duela bi urte hasi ziren Estatuko judo talde desberdinak parte hartzen duten liga honetan lehiatzen eta bi denboralditan 3. mailatik 1. mailara igotzea lortu dute. Azken maila honetan arituko dira larunbatean hasi eta ekaina bitartean eta Ohorezko mailara igotzea du helburu Esteban Arrillagak zuzendutako taldeak.

Goreneko maila horretara igotzeko asmoa dutela dio Estebanek. "Azken bi denboralditan 3. mailatik 1. mailara igo gara eta orain Ohorezko Mailara igotzea besterik ez zaigu falta. Lehen aldiz parte hartu genuenean, 3. mailan, 30 talde ginen eta 2. postua eskuratu genuen. 2. mailan 1. postua eskuratu genuen pasa den denboraldian eta hastear gauden honetan uste dut mailaz igotzea lortu dezakegula. Horixe da igotzea falta zaigun eskailera bakarra". 13 klub izango dira lehian eta 3 taldek lortuko dute igoera. Talde horien artean egon nahi dute herriko judoek. "Beste taldeak gu bezain indartsuak direnik ez dut ustedio Estebanek- eta hiru talde horien artean egon gaitzek. Ez dakidana da irabaztea lortuko dugun".

Ibai Peña, Andoni Aizpuru, Aitzol Arrospide, Xabier Urkizu, Iker Lizarribar, Egoitz Mora eta Mikel Ponga izango dira liga honetan herriko judo taldeko ordezkariak eta larunbatean izango dute lehen jardunaldia Madrilgo Kirol Kontseilu Gorenaren kiroldegian. Madrilgo Kobe H. eta Palomeres eta

Cordobako Athenas taldeak izango dituzte aurrez aurre lehen saio honetan.

Oiana Blanco Belgradon

Azkenik, Oiana Blanco Usurbil Judo Taldeko judoka oriotarrak 3. postua eskuratu berri du Espainiako selekzioko bere taldekideekin batera Belgradon izan den Senior mailako taldekako Europako txapelketan eta abenduan Korean ospatuko den Munduko Txapelketa Unibertsitarioan parte hartuko du.

Garaipenekin jarraitzen dute eskubaloian

Usurbil Kirol Elkarteko 1. Territorial eta jubenil mailako taldeek jokaturako partida guztiak irabaziaz jarraitzen dute. Talde nagusiak 34-28 menderatu zuen Tolosa eta Bergararekin batera lidergoan daude 3. jardunaldi jokatu ostean neurketa guztietan garaipena lortuta. Asteburu honetan Hegialde Autoren aurka jokatu dute Legazpin. Bestalde, Gipuzkoako txapelketa jokatzen ari den jubenil mailako taldeak ere garaipena eskuratu zuen Oiardon, 29-17 nagusitu baitziren Amenabar Zarautzen aurka.

Euskal basoen historia aztergai, Aranzadi zientzia elkarteak antolatuta

Euskal basoek azken bi mendeetan izandako eboluzioaren nondik norakoak bilduko dituzte "Euskal Basoen historia XIX eta XX. Mendeetan" izenburupean. Aranzadi Zientzia Elkarateak jardunaldi teknikoak antolatu ditu.

XIX eta XX. mendeetan, euskal mendiek jasan zituzten aldaketak ezaugarazi asmoz, Aranzadi Zientzia Elkarateak jardunaldi teknikoak antolatu ditu. Azaroaren 11 eta 12an kudeaketa tradizionalak nagusi ziren mendi-egituratik, birlandaketen ondorioz pinudi zabalek osatutako egiturara igarotzerakoan izandako aldaketak aztertuko dira. Baita, eboluzio horren arrazoiak eta aldaketek ekologian eta paisaian eragin dutenari buruz ere.

Aranzadiko lehendakari Jose Miguel Larrañagak aurkeztuko ditu jardunaldiok.

Hilaren 11ko goiz osoan zehar, adituek gaiari buruzko alor ezberdinak jorratuko dituzte; zuhaiztien kudeaketa eta foru araudia, XX. mendean Euskal Herrian izandako birlan-datzeko prozesua eta mende bereko baso-birlandaketak. Horiek guztiak, Aranzadik Donostian duen egoitzan.

Lau hormetatik at ere ekitaldirik antolatu dute. 1892-2006 artean, euskal mendien egitura, dibertsitatean eta erabileretan izandako aldaketak gertutik ikusteko parada izango da. Irisasira txangoa antolatu dute. Behar adina plaza kopurura ailegatuko balitz, autobusa ere antolatuko da.

Ekintza horietan parte hartzen duten EHUKo ikasleek Aukera Libreko Kredituak eskuratuko dituzte. Dagoeneko Aranzadiren egoitzan izena eman daiteke, 15 euroren truke. Informazio gehiago, 943 466 142 telefono zenbakian.

**EUSKAL BASOEN HISTORIA
XIX ETA XX. MENDEETAN**
Jardunaldi Teknikoak

**LA HISTORIA FORESTAL VASCA
DURANTE LOS SIGLOS XIX Y XX**
Jornadas Técnicas



2006ko azaroaren
11 eta 12
11 y 12 de noviembre
de 2006

ARANZADI zientzi elkarteak
comunidad de científicos - society of sciences - société de sciences

Eguneko goardiako farmaziak

Azaroak 6, astelehena
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 7, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 8, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 9, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 10, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 11, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 12, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 2, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 3, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Azaroak 4, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 5, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

Urte osoko goardiako farmaziak www.noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

txirriStra
KONTZEJU ZAHARRA 13
943 360 400

pintxoak
ogitartekoak
plateak konbinatuak

TABERNA

Zendoia



Kale Nagusia 3b - 943 361 40 71

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Agenda !

Azaroak 1, asteazkena

- Artisautza azoka frontoian.
Antolatzailea: Aitzaga Elkartea.

Azaroak 3, ostirala

- Joseba Tapia Sutegin. 22:30ean.
Sarrerak 8 eurotan salgai Txirristan eta NOAUA!n. NOAUA!ko bazkideek 5 euro; bazkide bakoitzeko sarrera bakarra salduko da baina azaroaren 2a baino lehen jaso beharko da NOAUA!ko egoitzan. Antolatzailea: NOAUA!. Babeslea: Usurbilgo udala.

Azaroak 4, larunbata

- Txan magoa Sutegin. 17:00etan eta 19:00etan. Sarrera 2 euro, Txirristan eta NOAUA!ko bulegoetan. Antolatzailea: NOAUA!. Babeslea: Usurbilgo udala.

Azaroak 5, igandea

- Erle Eguna 2006. Lehiaketak, erakusketa, enkantea, bazkaria...

Azaroak 7, asteartea

- Aitor Egiletak prestatutako ikusentzunezkoa. 20:00etan Sutegin. Antolatzailea: NOAUA!. Babeslea: Usurbilgo udala.

Azaroak 8, asteazkena

- Xabi Telloren sukaldaritza ikastaroa Santueneko Ibai Ondo elkartearen. Antolatzailea: Santuene Elkartea.

Azaroak 10, ostirala

- Pello Añorga ipuin kontalaria 18:00etan Sutegi udal liburutegian. Sarrera doan. Norentzat: 4 urteko umeentzat.
- Xabier Amuriza eta Mixel Ducau, "50 urte" bertso emanaldia. Sutegin, gaueko 22:00etan. Sarrera, 3 euro. NOAUA!ko bazkideentzat, doan. Antolatzailea: NOAUA!. Babeslea: Usurbilgo udala.

Usurbildik BECeko kontzertura joateko autobusa antolatu da

Kontzertu erraldoia izango da azaroaren 11n Barakaldoko BECen. Fermin Muguruza, Bad Sound System, DAM eta La Banda del Surdoren emanaldiarekin 18/98 sumarioa salatu eta auzipetuei elkartasuna adierazi nahi zaie.

Tick Tack Ticket-en web orrialdean eros daitezke sarrerak. Horiek jasotzeko, Elkar, Fotoikatz, Fnac edota Carrefour dendetara jo behar da azaroaren 8a baino lehen. Egunean bertan takilan ere salgai izango dira. Dena den, Usurbilgo lan taldeak bertara joateko autobusa antolatu du.

Udaletxetik irtengo da

Arratsaldeko 17:30ean irtengo da, udaletxe aurreko plazatik.



HERRIKO TABERNETAN DAUDE
IZENA-EMATEKO ORRIAK.

Ordubete geroago, 18:30ean ireki-ko dituzte BECeko ateak. Kontzertua 20:00etan hasi eta gauerdian amaituko da. Autobusa, aldiz, kontzertua amaitu eta gero bueltatuko da BECetik.

Ikasle eta langabetuek doan izango dute garraiobidea. Dagoeneko, izen emateko zerrendak tabernetan jarrita daude.

Zubeldia Taldearen bazkaria, azaroaren 11n Aginaga sagardotegian

Zubeldia txirrindularien lagunek urteko bazkaria ospatuko dute azaroaren 11n. Aginaga Sagardotegian bilduko dira baina aldeztu aurretik eman behar da izena Txiriboga tabernan: azaroan 9an osteguna amaituko da izena emateko epea.

Menua sagardotegikoa izango da eta txartelak 25 euroko prezioa



izango du. Bazkaria 14:00etan hasiko da.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA ON LINE • INKESTAK • FOROAK • POSTA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

ETXEBIZITZA

- Usurbilen hiru logelako etxe bat alokatu-tzen da. Abala eskatuko da. 649261704.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Zubiaurrenean 2 zenbakian berrituta dagoen lokal bat alokatzen da. 658758237.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.
 - Garaje itxita salgai, 18 m2. Merkea. Puntapax bidean. 610 29 18 64 (Carlos).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Bi emakume eskaintzen dira goizez bi orduz lan egiteko. Deitu 659879040 / 943 365 737 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da, orduka zein egun osoz. 610 669 335.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zen-

bakiak: 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Jatetxe batean garbitasun lanak egiteko emakume bat behar dugu. Interesatuak deitu 943 36 27 13.
- Arratsaldeko etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. Interesatuak deitu 664774024.
- Bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak saltzen ditut modu onean. Interesatuak deitu 664774024 telefono zenbakira.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna kondizio onetan daukagu salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. 679185102
- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

HILDAKOAK

- Jose Antonio Lasa Astiazaran.
Urriak 26an hil zen
58 urterekin Zubietan.



- Kontxi Larreta Amundarain. Urriak 20ean hil zen Agerretxiki baserrian.

Txerrimunik ordaintetan !



Zorionak Unax, Mikel eta Itsaso!
Azaroak 7, 8 eta 10an egingo dituzue urteak eta lagun eta etxeko guztiak muxu potolo bat bidaltzen dizuegu.



Zorionak Pepelu eta Ainhoa!
Azaroak 10 eta 13an izango dira zuen urteak, zenbat ez ditugu esango baina zorionak etxeko eta lagunentzako eta muxu haundi asko bioi. Ardieltzeko poteoa zuen kontu!

Txerrimunik ordaintetan !

Zorionak Nora!

Azaroaren 2an 7 urte egingo ditugure etxeko loreak. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztien partez. Txokolate eta txurroen zai egongo gara!



Zorionak Beñat!

Azaroak 2an urtebete egin-goz duzu eta ea ondo ondo pasatzen dugundenok. Muxu potolo pila bat etxeko guztien partez.



Zorionak Markel!

Azaroaren 5an bi urte beteko dituzu muxu potolo bat zure etxeko guztien partez.



Zorionak Unax!!

Urriaren 30ean 2 urte beteko zenituen, muxu handi bat zuretzat ama, aita eta Iratiren partez.



Zorionak Aingeru!

Amaren eta aitaren partez, muxu handi bat!



Aupa bikote!

Urriaren 22an Haritzek 9 urte bete zituen eta azaroaren 5ean Eneko beteko ditu. Alaitasunez ospatu eta tarta pixka bat utzi guretzat. Muxuak



Zorionak amona Dolores!

Zure festan txokolatea jateko zain gaude. Muxuak zure iloben partetik



Zorionak Oihana!

Herrikoen partez besarkada estu bat eta muxu haundi bat. Datorren urteko ospakizunak herrian egiteko zain izango gara. Presoak etxera orain!

>> TXAN MAGOA IKUSKIZUNA

Magiaz Blai ikuskizunaren aurkezpena



Euskal Herriko magorik ezagunena da Txan. "Magiaz Blai" ikuskizuna aurkeztora hurbilduko da Sulegira. Berlaralzen direnek hamaika magia-joko liluragarriak gozatzeko aukora izango dute.

>> sarrera: 2€ <<

Barrak Tximistren eta NOAUA!ko elkarteak egotzen saiatu.

azaroa

04

larunbata

17.00

19.00

Sutegin

>> AITOR EGILETA DVD SAIOA

Munduan zehar bidaiaren irudiak



>> sarrera: doan <<

azaroa

07

asteartea

20.00

Sutegin

Aitor Egiletak belidank gustukoa izan du bidaiatzea. 2004ko abenduan, munduari itzulita emateko asmoz abiatu zen. Urtebetez han eta hemen ibili zen eta horren berri eman zuen NOAUA! aldizkarian. Bidaiari zehar irudi eder ugari bildu zituen Aitor Egiletak eta irudi horiekin osatutako ikusentzunezkoa eskainiko du Sutegin.

>> 50 URTE BERTSO EMANALDIA

Xabier Amuriza bertsolaria eta Mixel Ducau musikaria



Izenak berak dioenez, azken mende erdiaren pasarteetaz ariko dira, bertso musikatuari bitartez. Berezia izango da emanaldia, horiko historia, gai politikoak, gai sozialak, euskara... landuko baitituzte. Mixel Ducauk ere solista bezala pieza dotoreak eskainiko dugu.

azaroa

10

ostirala

20.00

Sutegin

>> sarrera: 3€ / Noaúa!ko Bazkideak doan <<

Barrak agundak bertan Sutegin saiatu. NOAUA!ko bazkideak elkarteko egotzen jaso behar dute bertan emanaldieko gortidegilea, erakutsen da piano lehen. Bertan bertaneko gortidegilea berea izango da.

JOSE AZPURUA
UNANUE

TELATUAK • FATXADAK

Finkeko kalea 1-5A, Iruñe-Oteku
943 36 17 83

Obabako kalea 12, Asteasu
943 69 68 02

URDANTZI

943 32 72 64
649 43 54 75
649 43 54 76

ERRAZKIN

943 372 679
943 365 125
629 420 565
649 435 470
urki.mutaco@euskaltel.net

Josue
Aranzazistroki

943 360 550
606 372 105
JOSUE ARANZAZISTROKI

Antonio
URRUZOLA

Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astasuain Industrialea, 3

BEREZIARTUA
S.L.

egurra eta
egur-aluminiozko
leihotak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE

Sakamendi Arregi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barron Elxe Kalea
ZUBIETA

Javier
Orbegozo

Gasa-berokuntza
659 602 789
Erreka txiki 13, Bask

Jose txo
Ikatzeta

687 951 225

Lataillade

gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume

Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN

943 830 072
659 883 912

andoni
MARCOAK

605 702 517
Arrantzaile p. 8-20

fernando
PINTURAK

en papela ketak
lurzoruak...
943 366 019

IZAGIRRE

943 365 095
609 068 111
Gaz. ARRI ETXEA 37
KALEZAR

ARGILAN

Jose Luis Borda Zugasti
Industria instalazioak, kontxe ketak
943 361 380
629 272 859
Borda Berri 5 lizea

ofizioen gida

IGELTSERITZA

AROSTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTROKITA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaia.com